

www.noaua.com

# Noaua!!



Oilasko biltzaileen txanda



Oraindik falta dena...





# A. Bruño e Hijos S.L.

ondo pasa Santixabeletan!

## ANGULAK ETA ITSASKIAK

Menu ezberdinetako  
aurrekontuak egiten ditugu.

Egin ezazu zure eskaera telefonoz:

☎ 943 37 27 88 Usurbil

Legarde Kaleko Zumartegi.



Ganbak, langostinoak, karrakelak,  
nekora, lanpernak, buia, zentolloa,  
mixera, kamarolak, olagarrua, ardo txura


**65€**



# atxega *jauregia*



Uatekhea



Hotela

ondo pasa santixabeletan!!

• Ezkontzak, jauntziak, ... edozein ospakizunetarako toki egokia.  
• Eguneroko menuak • Plater kontinutuak • Egitaratekoak • Pintxoak

reservas@hotelatxega.com

Ritzezarra kalea, Zumartegi poligonoa

Tel.: 943 371 150 • 943 376 666

**Albisteak iruditan !!**

# Lapurreta ugari azken egun hauetan

Ekainaren 27an lapurreta izan zen Argilan dendan. Ateko kristala hautsi eta bertatik sartu ziren dendara, lapurreta egitera.

Zoritxarrez, aldiro-aldiro errepikatzen den kontua da. Ez bakarrik saltokietan, baita inguruko enpresetan ere.

Ekainaren 21ean, Ertzaintzak hiru gazte atxilotu zituen (16, 17 eta 18 urtekoak). Txiki Erdiko enpresa bateko atea apurtu eta enpresan sartzen saiatu zirelako atxilotu zituzten hiru gazteak.

Bi egun beranduago, gizonetako bat atxilotu zuten Urbilen, 34 urtekoa eta Kantabriako bizilaguna. Identifikatu ondoren, atxilotu eta poliziaren egoitzara eramán zuten, ustez zenbait kirol jantzi lapurtzen saiatzeagatik.



ATEKO KRISTALA APURTU ETA GERO LAPURTU ZUTEN ARGILANEN.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarteak Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
 943 36 03 21 - elkarteak@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarteak@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubada, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarteak@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietak, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubada, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

TRATU TXARRAK, HIZPIDE **5. OR.**

RITA PEÑALONGAREKIN SOLASEAN **6. OR.**

ZIORTZAKO KANPALDIA, PREST **11. OR.**

7 DOMINA IGERILARI TALDEARENTZAT **15. OR.**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





LUIS ARANALDE

## Erljioa osasun iturri?

**D**uela egun batzuk hitzaldi bat eman zuen gure Gotzainak Donostiako Hospitaleak antolatutako ziklo batean. Gaia: erljioa eta osasuna. Gustukoak izan ditut bere ideiak. Bere pentsamendua eta nirea jarraian agertzen ditut.

Hasiera hasieratik erantzuten dio honako galdera honi: Zer berezitasun behar ditu erljio batek edonorentzat osasun iturri bihurtzeko? Bere ustez honako hauek eduki behar lituzke.

Ez du sinetsi behar Jainko zorrotz eta zapaltzaile batengan. Horrek angustia eta erruduntasuna besterik ez luke sortuko. Duela egun batzuk irakurri nuen Joxe Arregiren "Jainkoaz galdezka" liburua. Gai honetaz honela dio Joxerra Gartzia: "Jainkoa entzutean, burura maitasuna eta erraierara, berriz, izua datorkit. Hostia nahi gabe ukitu izandakoetan bizi izan nituen izu-laborrizko herioak, esaterako, sekula ez ahazteko moduan dauzkat oroimen ohartuaren azpiko zolan". Eta Pello Esnalek honako hau erantzuten du galdetzen diotenean Jainkoa hitzak zer iradokitzen dijon: "Ez dut ezer jakin nahi jainko fiskal, inksidore, zikiratzaile, zapaltzaile eta gainerako idoloekin". Apaiz lagun batek aitortu omen zion behin: "berriro jaioko banintz, berriro ere apaiz egingo nindukek, baina baldintza batekin: konfesatokian sartu behar ez izatekotan". Benetako erljioak gertuko Jainkoa agertzen du, konfiantza sortzailea eta ez izu eragilea.

Ez du sinetsi behar Jainko paternalista eta superbabesle batengan. Horrek infantilismoa eta arduragabetasuna besterik ez ditu sortzen. Kreatzaile egin gaituen Jainkoagan sinetsi behar du.

Ez du sinetsi behar nolana manipula dezakegun Jainkoagan ere, gure kapritxoaren arabera dagoena, gure alde jar dezakeguna

gure errito, otoitz eta promesekin. Baizik, munduarekiko eta besteekiko arduratsu egiten gaituenarengan. Beraz, Joxe Antonio Pagolaren hitzetan, "erljio bat osasun bide da bere jarraitzaileak gorrotatik maitasunera daramatzen neurrian; bakardadetik adiskidetasunera; apatiatik errukira; axolagabeke-riatik sormenera; norbera gaitzestetik autoestimura".

Erljioak, benetakoa eta benetan bizi denean, zertan laguntzen dio sinesdunari osasuntsuago bizi dadin?

Neurrigabeko oparotasun eta kontsumo garai honetan, elkarbanatza bultzatzen gaitu erljioak. Kontzientzia soziala sendotzen du. Bidegabekeriak desegiteko konpromisoa harrarazten digu.

Askorentzat bizitzak zentzurik ez du. Erljioak bizitzeko motiboak ematen ditu, barne iluntasuna argitzen laguntzen dio. Sinesdun batek baliabide gehiago ditu etsipenean ez erortzeko. Honen adierazgarri Pello Esnaleen bertso hauek:

"Hainbat gauetan gidari zintzo izan zaitudan izarra, zuri begira bereizi ditut hegoa eta iparra, non legokeen zoriona ta non dagoen zoritxarra".

Eta azkenik, denoi iritsiko zaigu gaixotasun larriren bat eta heriotza. Erljioak laguntzen al du egoera zail horietan? Baietz esango nuke. Etsipenean erori beharrean, lagundu egingo digu biziago goza dezagun gure esku dagoen neurrian eta itxaropentsu hiltzeko indarra emango digu.

Juan Mari Uriarteren hitz borobil hauekin amaitzera noa: "Erljioak ez du gaixotasunik sendatzen, baina, osasun sortzailea da. Izan ere, ez baitago osasunik iparrak gabeko bizitzan".

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

## Ika-mika !!

### Gezurrez blai!

**A**zken egunetan, ezker abertzaleak eta Aheren alkateak hainbat berri, erdi-egi, erdi-gezur eta gezur hutsak zabaltzen dituzte. Egiari zor, gezurrez blai utzi gaituzte.

Bere unean, legealdiaren erdialdera abiatu garen honetan, Udala nola dabilen gure iritzia plazaratuko dugu. Gaur "gerontologia erresidentziaren" gaia argituko dugu. Guretzat oso gai sensiblea eta garrantzitsua da.

Ezker abertzalearen "bertsioa" ezagutu bezain laster Foru Aldundiko Gizarte Politikarako arduradunekin elkartu ginen gaia argitu nahirik. Hemen ondorioak:

Diputazioaren datuak eta ezinbesteko baldintzak: hurrengo urteetarako 600 ohe-beharra aurreikusten dira Donostialdean; lurzoru publikoetan eraiki behar dira erresidentziak; gehienez 120 bat inguru ohe eduki beharko lituzkete erresidentziak;

legez (39/2006 Legea eta 20/2002 Foru Dekretua) ohe bakarrek gelak izan behar dira eta usurbildarrek ez lukete zergatik lehentasunik izango, eta Gizakia Helburu (Proyecto Hombre) zerbitzua mantendu behar da.

Alkatea Diputazioko Gizarte Politikarako arduradunekin behin elkartu da (udal ordezkari bezala) eta bileran GEZUR garrantzitsu bat esanez: Udalak ez duela lur-zoru publikorik. Nolatan! Eta anbulatorio gaineko belardia? Eta konbentu ondoko udal biltegia? Argitzearren, azken leku honetan udalak 27 etxebizitza libre eraikitzeko eskubidea du. Golosoegia erresidentzi batean bihurtzeko, ezta?

Alkatea ILUNTASUNEZ ari da jokatzen; zeren, bigarren aldiz izan zen Diputazioan, bai, baina Matia enpresaren eskutik, ikusteko aukera izan dugun proiektu urbanistiko bat defendatuz, non,

konbentua zeharo eraitsiko litzateke, eta horren orde, erresidentziak gain, 26 etxebizitza libre eraikiko liratekeen. Lehen aipatu ditugun baldintzak bete gabe gainera.

Ze interes du alkateak enpresa konkretu batekin aritzeko? Diputazioari 3.000.000 euro Matia enpresarentzat eskatzen ibiltzeko? Lehiaketa publiko garden eta garbien bidez esleitu behar dira obra eta zerbitzuak!

"Hazkunde urbanistiko neurrigabeari, ezezkoa"; dio alkateak, baina babes ofizialeko etxebizitzaren arazoari heldu beharrean, Matia enpresari etxebizitza libreak nola eraiki eta erresidentziaren gestioarekin irabaziak nola lortu Diputazioaren aurrean lagunduz.

Albiste tentuz hartu behar dela diote, eta hain tentuz, benetan kezagarria baita!

Herriarren itxaropenekin ez da jolastean.

Usurbilgo Eusko Alkartasuna

# Tratu txarrak: hain gertu, hain urrun

**O**stiral arratsaldea. Euria goian behean. Lagun baten telefono-deia: joango al gara Sutegiko antzerkia ikustera?

Egia esan, hasiera batean "pereza" pixka bat eman dit, baina segituan erantzun diot baietz, joango naizela, joango garela. Hori bai antzerkiaren ondoren kafetxo bat hartzeko aitazkiarekin.

Antzerkiaren izenburua: "Kalean uso, etxean otso".

Argiak itzali dira. Antzerkia hasi da. Gogorra, oso gogorra. Tratu txarrak jasandako emakumeen bizipenak. Oilo-ipurdia jarri zait. Horrelakorik ezagutzen ote dudan galdetu diot nire buruari: ez, gertu gertukorik ez behintzat, pentsatu dut. Edo agian bai?

Antzerkiko protagonista nagusia Enma da. Antzerkira sartu garenean, baten batek esan du aktorea bera tratu txarrak jasandakoa ote den. Eta egia da: tratu txarren labankadak ditu besoetan, nabarmen igartzen zaizkio.

## HAIN GERTU, HAIN URRUN

"Eguneroko bizitzan tratu txar egoera asko daude gure inguruan, urrutira joan gabe"

Ikusten da ez dela aktore profesionala, baina gaia bizi du, eta horrela sentiarazi digu: bihotzetik bihotzera.

Argiak piztu dira, eta antzerkiko protagonista txalo-zaparrada artean Enma aktore izatetik Enma pertsona izatera pasa da, mahai-ingurua hasi



ENMA LARRETA AKTOREAK BERAK JASANDAKO ERASOTIK ABIATZEN DA "KALEAN USO, ETXEAN OTSO" ANTZEZLANA. EKAINAREN 13AN SUTEGIN IKUS AHAL IZAN ZEN, GIZARTE POLITIKA ZERBITZUAK ANTOLATUTA.

da. Bere zuzeneko testigantza entzun dugu. Antzerkian kontatu den istorioa benetakoa da. Inoiz ez zuen bere senarrarengandik tratu txarrak jasan. Egun batean, kalean zihoala, besterik gabe, senarrak hogeita bost labankada eman zizkion. Hiru urteko ume bat du. Zortzi hilabetetan ezin izan du bere semea besarkatu, zauriengatik. Zauri fisiko handiak izan ditu, baina, psikologikoki ongi dago, alai, bizitzeko gogoarekin, berriro maitemintzeko irrikan. Psikologoekin tratamenduan ari da. Buruz hain ondo egotea ez zaio gustatzen, eta ez omen da ona gainera. Min psikologikoa sentitu nahi luke: negar egin, triste sentitu, behe jo. Baina ezin du. Ezin du.

Ikusleen artean tratu txarrak jasan dituzten emakumeak daude, bat baino gehiago gainera. Oso bizipen garrantzak kontatu dituzte. Mahai-

inguruan gauza asko atera dira, interesgarriak guztiak. Baina ni honekin geratu naiz: eguneroko bizitzan tratu txar egoera asko daude gure inguruan, urrutira joan gabe. Tratu txarrak ez dira bikotekideen artean gertatzen direnak bakarrik. Tratu txarrak edozein giza harremanetan gertatzen dira: lagunartean, lanean, eskolan, parkean... Eta guri zuzenean gertatzen zaizkigunak ez badira, ez gara konturatzen, edo ez dugu konturatu nahi. Ez ditugu ikusten, edo ez ditugu ikusi nahi. Eta egoera horietaz jabetu naiz. Eta adibide ugari etorri zaizkit burura: inposaketak, ahulena zapaltzeko joerak, indarkeria mota desberdinak, iritzi desberdinak ez onartzeak, eskubide urraketak... Tratu txarrak: hain gertu, hain urrun.

Maite Iribar

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Oñandegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. © 943 362 725

**txirriStra**

KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466

pintxoak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

**TABERNA**

# Jubilatu egin da Rita, urte askotan Udarregi eta Udaleko garbitzaile izandakoa

**L**ugoko herri txiki batean, Carralen jaio eta bizitakoa da Rita Peñalonga. 1967an bere bizitza aldatuko zion erabakia hartu zuen; Usurbilera bizitzera etortzea. Hasieran urte zailak igaro arren, primeran integratu dela dio. Garbitzaile moduan aritu da udal lan taldean, 30 urtetik gora lanean. Jubilatu berria, Udalak burututako lana eskertu egin nahi izan dio Ritari.

**NOAUA! Zorionak! Nola jaso duzu albistea?**

Rita Peñalonga. Poz-pozik, oso pozik, ezin hobeto. Orain arte inork ez zigun langileoi modu horretako errekonozimendurik egin. Halakorik egiten duten lehen aldia da eta oso garrantzitsua da niretzat. Langileak aintzakotzat hartzea oso ondo iruditzen zait. Eskerrak eman nahi nizkieke. Oso pozik jubilatu naiz eta nire lanean ere oso pozik jardun dut. Ez dut uste inolako kezarik egon denik. 30 urtetan aritu naiz lanean, legegintzaldi guztiak igaro ditut.

**N. Zeure azken lan eguna noiz izan zen?**

R. P. Ekainaren 16an. Nahiz aurretik, hamar egunez bajan egon nintzen.

## RITA PEÑALONGA

“Herrian integratu naiz, baina pena bakarra dut; euskara ez jakitea, iritsi nintzenean ikasi ez izanagatik”

**N. 1967an nolatan hartu zenuten Carraletik (Lugotik) Usurbilerako bidea?**

R.P. Ingemarrera etortzen zen



EKAINAREN 16AN JUBILATU ZEN RITA.

gizon batek senarrari hemen lan egingeko aukera eskaini zion. Hona ekarri zuen. Senarra 1967ko urtarrilean etorri zen eta ni apirilean.

**N. Herriko bizitzara ohitzea kostal zitzazuen?**

R. P. Hasieran oso gaizki pasagenuen. Pisua alokairuan hartu nahi izanez gero ere, horretarako aukerarik ez genuen, ezta behar adina baliabiderik ere. 4.000 pezeta irabazten zituen senarrak, hamabi ordu lan eginda eta nik ez nuen lanik egiten

lehen urteetan. Hiruzpalau urtez egon ginen, ezagutzen ez genituen beste pertsona batzuekin etxe berean bizitzen. Gerora, gaur egun bizi garen pisura joan ginen. Nire eta senarraren izerdiarekin aurrera atera ginen, gu biok eta lau alabak.

Herrian integratu naiz, baina pena bakarra dut; euskara ez jakitea, iritsi nintzenean ikasi ez izanagatik. Baina garai hartan, ezta Eskola Nazionaletan ere ez zuten ematen. Gaur egun, desio izango nuen jakitea.



**N. Zeure lan egun bat nolakoa izaten zen?**

**R. P.** 13:30ean fitxatzen nuen egunero. KzGunera joaten nintzen lehenik eta handik Bake Epaitegira. Gero Udarregi ikastolara. Bake Epaitegia garbitzea egokitzen ez zenetan, brigadako en egoitza txukuntzera joaten nintzen. Baita Agerialde ere. Nire lan orduak zirenez, joan beharra zegoen. Bete beharra dago, aurrera egin nahi bada. Lan asko da, baina eginez gero, emaitza dotorea uzten duena.

**N. Hemendik aurrera, zer plan duzu?**

**R. P.** Orain atsedean hartzeko garaia da. Hemen bizitzen jarraitu eta bizpahiru hilabete jaioterrian pasako ditut, Lugon. Hala ere, han hilabete egon ostean, Usurbilen falta sumatzen dut.



**Harrera udaletxean.** Pasa den astelehenean, Udalak harrera egin zion Rita Peñalongari. Xabier Mikel Errekondo alkatearen eskutiko oroigarri bat jasozuen Ritak, urtetan udaletxeko garbitzaile izandakoa eta jubilatuta berri dena.

## “Gustuko dut ikastolan dagoen giroa”

**NOAUA!** Nola oroitzen dituzu lehen lan urteak?

**Rita Peñalonga.** Ikastolan ere oso gustura. Kalezarko eraikinean, lehen langilea izan nintzen. Gogoan dut, Felix Aizpurua ikastolen alde borroka asko eta lan handia egindakoa izan zen.

Garbitzaile bezala, ahal dudana egin dut. Soldata kobratu gabe lanera joateko neure burua eskaini nuen, aurrera egiteko dirurik ere ez zegoen garaian. Orduan, segururik gabe eta hiru hilabete beranduago kobratzen genuen soldata. Baina hainbeste maite dut ikastola.

### HASIERA ZAILA UDARREGIN

“Seguru gabe eta 3 hilabete beranduago kobratzen genuen soldata, baina hainbeste maite dut ikastola”

**N. Ikastolak izandako aldaketan lekuko zuzena izan zara.**

**R. P.** Jende asko pasa da. Jubilatuta diru batzuk, berriak sartu... Oso ondo eramatzen dira, familia handia osatu dute ikastolan. Zuzendari bikaina, irakasle



talde on batekin.

Denak aurrera ateratzeko prest. Gustukoa dut bertan dagoen giroa. Horregatik diot, aurrerantzean garbiketa zerbitzua ere bide onetik jarraitzea nahiko nukeela.

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**MIKEL**  
**IZAGIRRE**  
ELEKTRIZITATEA

943 365 095  
609 068 111

GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)

USURBILGO ATARIA

**Otar-Goxo**  
Elikagailuak

Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

# Euskaldunon alfabetatzean garrantzia handia izan zuten egutegi zaharrek

**E**uskaldun zintzoaren etxerako eskuliburua (Utriusque Vasconiae, 2008) plazaratu berri du Ana Eizagirre usurbildarrak. XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako egutegiak aztertu ditu eta euskaldun herritarren alfabetatzean funtsezkoak izan zirela ondorioztatu du. Ez hori bakarrik. Ahozko kulturaren eta kultura idatziaren arteko zubi lana egin zuten “Euzkel Egutegiya” eta gainerako egutegiek.

Lehenik, euskarazko alfabetatzearen historiako ikerketa bat egin zuen Ana Eizagirrek. 1876tik 1918ra bitarteko garaia ikertu zuen. Alfabetatzea aztertzeko garaian, euskarazko irakurketa eta idazketaren inguruko kultur praktiketan erreparatu zuen batez ere. Euskaraz nola, zergatik eta non irakurri eta idatzi den bereziki. “Eta testuinguru horretan, XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran, hasi nintzen ikusten zein kultur praktikak zeuden lotuta irakurketa eta idazketarekin. Batez ere, herri euskaldunak zer irakurtzen zuten interesatu zitzaidan. Ez eliteak, baizik eta herritar arruntak”. Testuinguru horretan, lankide batek egutegi txiki bat oparitu zion Ana Eizagirreri, XX. mende hasierakoa eta azoka batean erositakoa. “Begirada bat bota nion eta nire artean, kontxo egutegi honetan ez dago bakarrik egunari buruzko informazioa. Bazegoen informazio gehiago. Egutegiak aztertu beharko nituzke irakurketa praktika bezala, esan nion nere buruari”, hala adierazi digu Ana Eizagirrek.

## Euskaldunon identitatea bermatzeko kultur mugimendua

Hara non, Gipuzkoan eta gipuzkoarrentzat argitaratu ziren egutegi haiek oso inportanteak izan ziren alfabetatzearen ikuspegitik. Ana Eizagirrek kontatu digunez, “gaztele-



UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA DA ANA EIZAGIRRE. “EUSKALDUN ZINTZOAREN ETXERAKO ESKULIBURUA” IKERKETA PLAZARATU BERRI DU.

razko alfabetatzearen presioa gero eta nabarmenagoa da garai hartan. Eskolaren bitartez, gaztelerazko irakaskuntza gero eta tinkoago ari da finkatzen Gipuzkoan, eta garai hartan bada kultur mugimendu inportantea, euskaldunon identitatea mantentzera zuzenduta dagoena. Kultur mugimendu horren barruan sartzen dira egunkariak, aldizkariak... Eta baita egutegiaren argitaratzea ere”.

## Bertso-paperen garrantzia

Izan ere, egutegia behar beharrezko

tresna zen, “zein egunetan zauden jakin behar duzu, noiz joan behar duzun mezetara, santorala... Funtsezkoa zen. Garai hartan hasi ziren euskarazkoak argitaratzen”. Baina egutegiek, hein handi batean, bestelako informazioa ere biltzen zuten. Ana Eizagirrek azaldu digunez, “bertso-paperen fenomenoia eman zen garai hartan eta horrek ere isla izan zuen egutegietan”. Gipuzkoan bazen irakurketa laiko bat, bertso paperen barruan, eta egutegiak ere horretaz baliatu ziren.



Herri kulturarekiko erreferentziak ugariak dira: bertso idatziak, elkarrizketa moduan emandako testuak, atzeraldi xebreak, txistek, herrietako pertsona xebleerei erreferentziak... Hortik ondorioztatu du Ana Eizagirrek “ahozko kulturaren eta idatzizko kulturaren arteko zubia izan direla egutegiak”.

### Egutegi zaharrak, altxor handia

Baina mezu moral eta erlijiosoek ere espazio nabarmena dute aztergai izan diren egutegi horietan. Tradizio katoliko batekin lotutako jokabidea sustatzen zen, garbizaletasun moral eta linguistikoa mantendu, odola ere garbi eduki...

Lopez de Mendizabal argitaratzaile sendiaren eskutik iritsi ziren egutegi

### ARGITARATZAILEEN ASMOA

“Euskaraz irakurtzeko zaletasuna zabaldu behar zen argitalpen arinak, errazak eta atseginak eginez”

ezagunenak Gipuzkoako etxeetara. Ana Eizagirre ikerlari usurbildarrak adierazi digunez, argitaratzaile tolosar hauek oso argi zuten helburua: “euskaraz irakurtzeko zaletasuna zabaldu behar zen argitalpen arinak, errazak eta atseginak eginez. Hori funtsezkoa da. Hori ikusten da testuliburu hauetan”.

Beste hainbat irakurketa egin daitezke. “Azterketa historiko-pedagogikoa egin dut nik. Baina aztertze

modukoa ere izan daiteke literatur zalearentzat, prentsa ikuspegitik ere berdin... Nik uste dut altxor handi bat dela”.

### Amonari eskainia

Hizpide dugun liburua amonari eskaini dio Ana Eizagirrek. “Nik Arantzazuko egutegia ezagutu dut etxean, paretean pegatuta. Nere amonak gauero *letu zazu* esaten zidan. Nik garai hartan pentsatzen nuen, ze amona pisua, ze egoskorra... Baina lan hau egiteak nolabait lagundu dit bere ekintza berrinterpretatzen. Zenbat eta zenbat etxeoandre izan dira belaunaldiz belaunadi lan hori egiten aritu direnak”.

Transmisioaren funtzioan, hain garrantzitsua izan den egoskorkeria...

### Fitxa teknikoa !

## “Euskaldun zintzoaren etxerako eskuliburua”

**Egilea:** Ana Eizagirre Sagardia

**Argitaletxea:** Utriusque Vasconiae

**Orrialde kopurua:** 362

**Ezaugarriak:** Euskal Herriko hezkuntzaren historiaren esparruan Ana Eizagirrek egin duen ikerketa-lana biltzen du liburuak. Zehazki, herri-xehearen baitan irakurketa eta idazketaren inguruan sortu eta garatu diren praktika kulturalen azterketa egin du, ikuspegi historiko eta pedagogikotik. Egutegiak eta hauen irakurketa ohiturak ezagutu nahi izan ditu. XIX. mendearen bukaera aldera, eta XX. mendearen lehenengo hamarkadetan Gipuzkoan sortu eta irakurri ziren euskarazko egutegiak aztertu ditu, euren bila-kaera historikoa, eta edukiaren azterketa morfologikoa eginez. Garaian egin ziren saiakera desberdinen artean, irakurketa-

eredua finkatu zuen egutegi bat identifikatu du: “Euzkel-egutegiya” (1909-1934), eta bere osagarri gisa argitaratu zen “Euzkel-egutegi txikiya” (1910-1920?). Irakurketa-eredua sortu zuen, izan zuen irakurleria ugariagatik eta iraupen luzeagatik. Horrenbestez, ondoren argitaratu ziren Argia egutegiaren, eta, baita, Arantzazuko egutegiaren, oinarria izan zen “Euzkel-egutegiya”, eta bere inguruan garaturiko irakurketa ohitura.

Egutegiaren edukiaz egiten duen azterketatik, forma, hizkera/idazkera, eta edukiaren inguruko hainbat ondorio ateratzen du egileak: izaera entziklopedikoa zuen egutegia izanik, bere baitan bildu zuen euskaltzaleatasunaren zeinu ziren ezaugarriak, hots, hizkuntza, eta eredu tradizionalarekin bat zetorren

jokabide moral eta kultural multzoa. Horien guztien artean, hizkuntzak kontsiderazio nagusia hartu zuelarik, hizkuntz kontzientzian oinarritzen zen kultur identitatea bultzatu nahi izan zutela esan daiteke.

Egutegia sortu zuten eragileen asmoa zen euskarazko irakurketa sustatzea, eta berau atsegin egitea. Halaber, egutegiko orrietan ikusten da, herritarrek alfabetatzeko eta herritarren izaera hezteko zuten borondatea. Ezaugarri horiez gain, herritarren artean izan zuen harrera eta sarbide ona ikusita, eskuliburu funtzioa bete zuela esatera dator egilea.



**ALIPROX**

Kale Nagusia 10  
 ☎ 943 361 182  
 USURBIL

Industri eta iragarki  
**SERIGRAFIA**  
**TANPOGRAFIA**

KAMISETEN IMPRENTARITZA

**POSU**

943 371 954  
 UBALDEA POL.36-2-USURBIL

**Xukin** Andoni Errazkin

igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

☎ 663 08 76 71 • USURBIL

## Etxebizitza tasatuak arautuko dituen udal ordenantza behin betirako onartu da

**E**kainaren 24an egin zen ohiko udalbatza plenoan hartu zen erabakia. Etxebizitza tasatuak bideratzeko, eman beharreko urratsa zen udalbatza plenoak hartu duen erabakia. Gai gehiago ere aztertu zituzten.

Pauso berri bat eman zen azken udalbatza saioan, etxebizitza tasatuen araudiari dagokionean, behin betiko onarpena eman baitzieten pleno aretoan ziren udal ordezkariak, EAJ-PNV-ko zinegotziak izan ezik. Hark aurka bozkatu baitzuen. Ordenantzari pasa den apirilaren 29an eman zitzaion hasierako onespina. Gerora, 30 lan-egunetz jendaurrean ikusgai egon zen, baina ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Beraz, bere bidea osatzeko gelditzen zitzaion azken pausoa eman du etxebizitza tasatuen udal ordenantzak. Aipatu bezala, udal ordezkarien behin betirako onarpena jasotzea.

### Hilobi lote berri baten eskubideak esleituko dira

Orain arte, hilerri berriko panteoia erabiltzeko eskubideak esleitzen joan da Udala. Dagoeneko lau lote esleitu dira. Eskaria badela ikusita ordea, orain, bosgarren lote baten eskubideak esleituko dira; hilerri berriko hiru hilobi eta sei hilobiko beste hiru panteoi. Hala erabaki zuen udalbatzak pasa den ekainaren 24ko pleno saioan eta aho batez. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia publikatzen den egunetik zenbatzen hasita, eskabideak aurkezteko 30 eguneko epea egongo da.

Gogoratu, araudiak dioenez, hilerri berri lurperatzeko aukera izango dute, jatorriz Usurbilgoak direnek, gutxienez hamabost urtez herrian erroldatuta egon direnek edota hiltzeko unean herrian erroldaturik daudenak.



EKAINAREN 24AN EGINDAKO UDALBATZA PLENOKO IRUDIA.

### Artzabalgo zerbitzuak esleitzeko prozedura, hutsean

Adineko herritarren gune berriari bihurtuko da laster Artzabal. Bertako sarrera, taberna, jangela, eta behe solairuko zerbitzu eta instalazio osagarrien erabilpena eta kudeaketa esleitzeko prozedura irekia martxan jarri zen maiatzaren 7tik 22ra. Tarte horretan ordea, udal erregistroan ez zen eskaintzarik aurkeztu. Gerora, bi proposamen bai, epez kanpo ordea. Hala, pasa den ekainaren 24ko udalbatza saioan, prozedura hura hutsik deklaratu eta iragarkirik gabeko prozedura negoziatuari hasierako onespina eman zitzaion. Bertan, hiru enpresei parte hartzeko gonbita luzatzen zaie.

Kontratuaren iraupena bere horretan mantenduko da. Bi urteko hitzarmena litzateke, nahiz haren indarraldia zortzi urte gehiagoz luzatu daitekeen. EAJ-PNVko zinegotzia izan ezik, pleno aretoan zeuden udal ordezkari guztiak proposamenaren alde agertu ziren.

### Buruntzaldeko kirol zerbitzuak

Behar adina kirol instalazio ez izateari aurre egiteko elkarlana bultzatzea

du helburu, azken plenoan aho batez onartu zen Buruntzaldeko kirol-zerbitzuak elkarlanean emateko hitzarmen berritze proposamenak. Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalerriek izenpetu dute. Urtebetez indarrean egongo da eta erabiltzaileek norbere herriko zein hitzarmenarekin bat egin duten gainerako lekuetako kirol instalazioak baliatzeko aukera ematen du. Hala ere, akordioak udal bakoitzak bere kirol instalazioak arautzeko duen autonomia errespetatzen du. Hernani eta Astigarraga hitzarmen horretatik kanpo geratu dira.

### Usurbilgo Aralarren elkartasuna Bruño ahizpei

**E**lkartasuna adierazi zieten Aralarako zinegotziek azken udalbatza saioan, duela aste batzuk atxilotu eta espetxeratu zituzten Bruño ahizpei. Astakeria juridikotzat jotzen dute gertatutakoa eta Bruño ahizpak berehala aske uztea eskatzen dute. Baita Auzitegi Nazionala desagertzea ere.



## Astelehenean hasiko da Ziortzako kanpaldia

**H**erriko jaiak bukatu ondoren, 50 bat gaztetxok Peñaloscintosen (Errioxa), Ziortzak antolatutako kanpaldian parte hartuko dute. Bi txandatan joango dira; nagusienak hilaren 7tik 20ra eta gazteenak astebeterako, uztailearen 20tik 27ra. Pasa den asteburuan kanpaldiko gunean izan ziren Ziortzako kideak eta hainbat herritar, muntaketa lanetan. Santixabelen ondoren bertara joatekoa den lehen gazte taldea hartzeko, dena prest utzi zuten.

Jada oporretan murgilduta dabilta herriko gaztetxoak. Garai honetan haiei zuzendu eta aisialdiari lotutako hainbat ekintza antolatzen dira; hor dago adibidez, Ziortzak Errioxako Peñaloscintos herrian antolatzen duen kanpaldia. Aurtengoan 9-15 urte arteko 50 gaztetxok izena eman dutenez, bi txanda prestatu dituzte. Lehen Hezkuntzako seigarren mailako eta DBH-ko lehen, bigarren eta hirugarren mailako ikasleak hamahiru egunez egongo dira Errioxan, uztailearen 7tik 20ra hain zuzen.

### KANPALDIA, PREST

“Pasa den asteburuan, herritar talde bat muntaketa lanetan aritu zen Peñaloscintosen (Errioxa)”

Haiek Usurbila itzuli behar duten egun berean abiatuko dira hemendik, LH-ko hirugarren, laugarren eta bosgarren mailako ikasleak. Bigarren txandako taldea, hilaren 27ra arte egongo da kanpaldian.

### Guztia prest

Hainbat jolas eta ekintzekin primeran pasatzeko aukera izango dute. Aipatzekoak dira, horien artean, lakura egingo dituzten irteerak edota Errioxako aipatu herrian egon ahal izateagatik Peñaloscintoseko herritarrekin egingo duten eskerrak emateko



HERRITAR TALDE BAT PEÑALOSCINTOSEN IZAN ZEN AURREKO ASTEBURUAN ETA KANPALDIA PREST UTZI ZUTEN.



PARAJE EDERREAN PASAKO DUTE UDALEKUA ZIORTZAREKIN BATERA BIDAIA TUKO DUTEN GAZTEEK.

afaria. Pare bat egunetarako irteerak ere egingo dituzte.

### Desmuntatze lanetarako laguntza

Pasa den asteburuan, Ziortzako kideak eta herritar talde bat, muntaketa lanetan aritu ziren Peñaloscintosen. Dagoeneko dena prest dute antolatzailerak. Ziortzakoek laguntzera joandakoak eskertu nahi dituzte.

Aurtengo kanpaldiari uztailearen 27an emango zaio amaiera. Azken egun horretan, bertan jarritako kanping, jantoki eta bestelakoak biltzeko garaia izango da. Muntaketarako bezala, desmuntatze lanetarako ere jendea behar da. Laguntzera joateko prest dagoenak deitu dezala honako telefono zenbakira: 943 361 239. Bertan izena eman eta telefono zenbakia utz dezala.

## Partehartze handia Usurbil Cup Txapelketan

